



## Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Aldi Baterako Babeserako Euskal Programa

Jatorrizko herrialdeetan egiten dutenagatik bizia edo osotasun fisikoa arriskuan duten giza eskubideen defendatzaileak babestea da Aldi Baterako Babeserako Euskal Programaren helburua, eta, horretarako, harrera egiten zaie Euskadin sei hilabetez.

Eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak defendatzen dituzten erakunde edo mugimendu sozialetan lanean ari diren pertsonak dira giza eskubideen defendatzaileak.

Programa CEAR-Euskadik kudeatzen du, eta Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak zuzentzen.

### ERAGILEAK

- Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza.
- Laguntza Sarea: eskatzen duten Euskadiko erakundeak.
- Hautaketa Batzordea: a) Eusko Jaurlaritza: Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Kanpo Harremanak; b) Beste erakunde batzuk: Hegoa Institutua (Euskal Herriko Unibertsitatea), Giza Eskubideen Pedro Arrupe Institutua (Deustuko Unibertsitatea), Euskadiko GGKEen Koordinakundea eta Bake eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza Elkarleen Foroa.
- ANSUR kolektiboa.
- Defendatzaileen jatorriko elkarreak.
- Programak bildutako pertsonak.

### FUNTZIONAMENDUA

**a. Hautagaitzen aurkezpena:** Programak, urtero, hiru pertsona hartzen ditu Euskadin sei hilabetez. Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak deialdi ofiziala argitaratutakoan, hautagaitzak aurkezteko epea hasten da.

**Jatorriko erakundeen hautagaitzak Euskadin egoitza duen giza eskubideen aldeko erakunde baten bidez aurkezten dira.**

**b. Hautagaitzen aukeraketa:** Hautagaitzak jasotzeko epea amaituta, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak hautaketa-batzordea biltzen du, bidalitako eskubideetan eta agirietan oinarrituta erabaki ditzan zer hiru pertsona hartuko diren. Euskadin egoitza duten erakundeen artean, aukeratutako hautagaitzak dituztenak Harrera Sarean sartuko dira, eta komunikazio-bidea izango dira programaren koordinazioaren eta jatorriko erakundearen artean.

**c. Jatorriko herrialdeetatik irtetea:** Jatorriko erakundeek eta Harrera Sareak batera antolatzen dute irteera (bidaia prestatzea; pasaportea, bisa eta bestelako agiriak



izapidetzea; itzaropenen kokapena; hasierako testuinguru-azterketa...), bai eta hartzen diren pertsoneri Bilbon egiten zaien harrera ere.

**d. Aldi baterako hartzea:** Prozesu horren barruan laguntza psikosoziala eta lan politikoa daude, hartutako pertsonen eta haien erakunde, komunitate eta mugimenduen gizarte-sarea sendotzen laguntzearen ikuspuntutik. Honako hauek planteatzen dira:

**1. Laguntza psikosoziala:** programa ikuspuntu psikosozialetik garatzen da. Eta, haren zernolakoaren ondorioz, babesaren gaineko ikuspegi osoa dauka, honako hauek jasotzen baititu: alderdi pertsonalak, politikoak eta antolaketa-alderdiak; indarkeria politikoaren eraginaren ondorioz arreta berezia behar duten pertsonentzako laguntza psikoterapeutikoa; eta hartutako pertsonen zaintza, herrialdetik aldi baterako irten izanaren esperientzia gauzatzeari dagokionez.

**2. Agenda politikoa:** eragin politikoa izateko lanaren premia du programak, zentzu orokorra emateko giza eskubideen aldezeleak aldi batez babesteari. Euskadin egon bitarteko lanaren xedea da pertsona horiek eta haien erakundeek laguntza politiko eta instituzionalaren esparruan dauzkaten nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea. Sareok, praktikan, babesmekanismoak dira, eta jatorriko herrialdeetan giza eskubideen alde lan egiten jarraitzea ahalbidetzen dute. Lan horri esker, bestalde, giza eskubideen alde lan egiten duten erakundeek jasaten duten mehatxuzko egoera azaltzen eta salatzen da euskal herritarren eta erakundeen aurrean (bai eta, hala egokituz gero, Espainiakoen eta Europakoen aurrean ere), eta haiek guztiak sentsibilizatu egiten dira.

**3. Prestakuntza-agenda:** Interesen eta kezken arabera, giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin zerikusia duten alderdietan espezializatutako prestakuntza aurreikusten da. Programara biltzen diren pertsonen lan-ibilbide ezaguna dutenez gero, hizlari ere arituko dira gune akademiko eta sozialetan.

**e. Itzulera:** Programaren une kritikoetako bat da, bereziki hartutako pertsonen segurtasunari dagokionez. Horregatik, elkarren osagarri diren zenbait gauza egin behar dira:

- Amaierako testuinguru-azterketa, jatorriko erakundeek egindako etengabeko jarraipenaren ondorio gisa.
- Ekintza-planak diseinatzea lurraldeetara itzultzeari begira.
- Esperientzia amaitzea eta ebaluatzea.
- Euskal ordezkari bat jatorriko herrialdera bisitan joatea, hartutako defendatzaileak itzuli ondoren.

Gehiago jakiteko, jarri harremanetan CEAR-Euskadirekin [programa.proteccion@cear-euskadi.org](mailto:programa.proteccion@cear-euskadi.org) posta elektronikoaren edo (0034) 94 424 8844 telefonoaren bidez